upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Berriozarren murgildu.

Herriko toponimia ikertu eta ezagutzeko proposamen didaktikoa.

Ekhiñe Aizkorbe Zabalza

Master Bukaerako Lana

Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Zuzendaria: Juankar Lopez-Mugartza

2023/2024 ikasturtea

LABURPENA ETA HITZ GAKOAK

Berriozar, historia asko duen herria da, argi ikusten da bere txoko eta kaleetan. Azken hauen izenei erreparatuko zaie lan honetan. Izan ere, hurrengo orrialdeetan Berriozarko toponimia aztertu da, baita euskarak herrian izan duen presentzia eta Nafarroan duen gaur egungo egoera ere.

Aipatutako azterketa egiteaz gain, Berriozarko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutuko D ereduko 4.mailan aurrera eramateko Unitate Didaktiko bat garatu da. Unitate Didaktiko horretan, ikasleek ezagutza-ibilbide bat sortzea izango dute helburu. Sortze prozesuan, Berriozarko toponimiaren inguruan ikertu beharko dute eta haien ikerketatik abiatuta herri osoari zuzendutako ezagutza-ibilbidea sortuko dute.

Unitate Didaktikoa Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Etapako Irakaskuntzaren Curriculumean oinarrituz egin da, zehazki ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuan.

Berriozar, toponimia, toponimo, euskara, Unitate Didaktikoa, ezagutza-ibilbidea.

RESUMEN Y PALABRAS CLAVES

Berriozar es un pueblo con mucha historia, se ve claro en sus rincones y calles. En este trabajo se reparará a los nombres de estos últimos. En las siguientes páginas se ha analizado la toponimia de Berriozar, la presencia del euskera en el pueblo y la situación actual del euskera en Navarra.

Además de realizar el análisis mencionado, se ha desarrollado una Unidad Didáctica para el desarrollo en 4º curso del modelo D del Instituto de Educación Secundaria Obligatoria de Berriozar. En esta Unidad Didáctica el alumnado tendrá como objetivo crear un itinerario de conocimiento. En su proceso de creación, tendrán que investigar en torno a la toponimia de Berriozar y a partir de su investigación crearán un recorrido de conocimiento dirigido a todo el pueblo de Berriozar.

La Unidad Didáctica se ha elaborado a partir del Currículo de la Enseñanza de la Etapa de Educación Secundaria Obligatoria de la Comunidad Foral de Navarra, concretamente en el Decreto Foral 71/2022, de 29 de junio.

Berriozar, toponimia, topónimo, euskera, unidad didáctica, camino de conocimiento.

ABSTRACT AND KEYWORDS

Berriozar is a town with a long history and this is shown in every street and corner. In this paper, we will refer to those latter. In the following pages, the toponymy of Berriozar has been analysed, as well as the presence of the Basque language in the town and also its current situation in Navarre.

In addition to the aforementioned investigation, a Didactic Unit has been created to carry out in the 4th grade of the D model at Berriozar Compulsory Secondary Education Institute.

This Didactic Unit has been based on the Curriculum of the teachings of the stage of Compulsory Secondary Education in the Autonomous Community of Navarre, specifically in the Foral Decree 71/2022 of the 29th of June.

Berriozar, toponymy, place name, Basque, teaching unit, knowledge route.

AURKIBIDEA

1. SARRERA 5
2. MARKO TEORIKOA 7
   2.2. Berriozar 8
      2.2.1. Berriozar eta euskara 8
      2.2.2. Berriozarko Toponimia 11
3. MARKO PRAKTIKOA 14
   3.1. Lege markoa 14
      3.1.1. Etapako helburuak 14
      3.1.2. Funtsezko konpetentziak 15
      3.1.3. Deskriptore operatiboak 18
      3.1.4. Konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak 20
      3.1.5. Oinarrizko jakintzak 23
   3.2. Aniztasunari trataera 24
   3.3. Saioak 24
   3.4. Ebaluazioa 29
4. ONDORIOAK 30
5. BIBLIOGRAFIA 31
6. ERANSKINAK 33

1. **SARRERA**

> "Herri baten historia, kultura eta izaera ezagutzeko bideetako bat toponimia da. Jakina denez, Berriozarko kale askoren izenak toponimoak dira. Hala, gure kaleen izenek, kaleak identifikatzen laguntzeaz gain, herri honen iraganaren eta geure nortasunaren berri ematen digute."
>
> Pello Uharte Orotz
> (Euskara Kultur Elkargoa, d. g.,1.or)

Berriozar historia asko duen herri bat da. *Berrio* toponimoa XIII. mende hasieran lehenengo aldiz agertu zela uste izan zen. Garai hartan ez ziren bereizten gaur egungo Berriozar, Berriosuso eta Berriogoiti, baina, horrek ez du esan nahi horietako bat existitzen ez zenik. Horrela ere, 1268. urtean, *Berditximaren liburuan* (Libro del Rediezmo) *Berrioçar* espreski aipatzen da (Urra, Errea eta Elia, 1986, 13.or).

Hala ere, aipatu beharra dago, herriko idazlea den Carmelo Urrak, 2008. urtean Iruñeko Katedraleko liburu borobilean Berriozar aipatua topatu zuela: *'Sancho el Mayor dona a la Catedral de Pamplona dos viñas en BerrioZahar'.* Liburu hau 1007. urtekoa da (Berriozar, 2024). Hortaz, dokumentu horrek herriaren sorrera aldatzen du, XI. mendera.

Jakina da eta Berriozar toponimoa lehen aldiz agertu zenetik gaur egunera erreparatuz, herriko izenak aldaera grafiko asko jasan dituela: *Berrioçar, Berrioçarr, Berrossar, BerrioZahar*…

Beraz, frogatua geratzen da Berriozar XI. mende hasieratik behintzat existitzen dela eta orduan hasi ziren herriko toponimoak dokumentatzen. Toponimia eskualde edo hizkuntza bateko leku izenen multzoa da (Euskaltzaindia, d. g.).

Gaur egun, berriozartarrak jakitun dira haien herriko kaleen izenez, baita leku esanguratsu batzuen izenez ere: *Lantzeluze, Etxaburua, Zortziko*… Baina ez hori bakarrik, elkarte, denda edo talde ezberdinetako izenak ere presente dituzte: *Unzu Txiki* denda, *Labarga* elkartea, *Bizkargain* fanfarrea, etab. Baina, badakite nondik datozen izen horiek guztiak? Nola idazten ziren? Edo haien esanahia?

Lan honek Berriozarko gazteei haien herriko toponimiaren esanahia eta grafiaren aldaerak ezagutzera ematea du helburu. Horretarako, Berriozarko Institutuko DBHko 4. mailan aurrera eramateko unitate didaktiko bat garatu da. Horretarako, lehenengo Berriozarko toponimiaren inguruko ikerketa bat aurrera eraman dut. Ikerketarako, hainbat dokumentu eta liburu irakurtzeaz gain, Berriozarko udaletxeko artxibora jo dut. Bertan dagoen libururik zaharrena aztertzeko aukera izan nuen: *Catastro de la cendea de Ansoain 1879, Berriozar.*

Lopez-Mugartzak (2008, 4.or) dioenari kontu eginez 'leku izenei esker euskalki baten garapen historikoa azter dezakegu'. Gure kasuan, toponimoen bidez herrian euskaraz ere bazekitela ikertuko dugu, grafiari erreparatuz. Lehen aipatutako Katastro

liburua horretarako baliatu dut, bertan, herriko bizilagunek zituzten lurrak eta mahastiak non zeuden aipatzen da eta egungo herriko toponimia topa dezakegu hor.

2. **MARKO TEORIKOA**

Berriozarko euskararen egoeran zentratu aurretik, garrantzitsua da Nafarroako egoera orokorra aztertzea. Horretarako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterreko, ikertzen hastea ikasgaian egindako ikerketa baliatu dut (Aizkorbe, 2023):

Nafarroako Euskararen Foru Legea ezagutzea ezinbestekoa da. 1986ko abenduaren 15ean onartutako eta 17an kaleratutako legea eta gerora aldaketak jasan dituena (2010, 2015, 2017). Nafarroa, euskarari dagokionez, hiru eremutan banatzen du: Eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna (Nafarroako Gobernua, 1986).

Foru lege honek euskararen erabilera arautzen du gizarte bizikidetza eta irakaskuntzaren esparruetan. Herritarrek euskara jakiteko eta erabiltzeko duten eskubidea babesten du, baita erabilera sustatzea eta bermatzea ere. Eta ez hori bakarrik, Nafarroako euskalkiek errespetu eta babes berezia dute lege honengatik (Nafarroako Gobernua, 1986).

Hala ere, eremuaren arabera, herritarrek eskubide ezberdinak dituzte. Eremu euskaldunean, euskara koofiziala da eta estatus zabala ematen zaio bai irakaskuntzan baita erabileran ere; eremu mistoan, euskara ez da ofiziala baina nolabaiteko babes eta sustapena du. Eremu ez euskaldunean, aldiz, euskarak ez du inolako babesik, ezta sustapenik ere. Babesik ez duen arren, hauxe esaten du legeak: “Botere publikoek euskararen irakaskuntza lagunduko dute, eta behar denean, osoki edo zati batean finantzatuko dute, sustapen eta promozio irizpideei jarraikiz eta eskariaren arabera” (Euskararen Foru Legea, 2024)

Hala ere, 2017. urtean egondako aldaketaren ondorioz, D eredu publikoa ezarri zen eremu ez-euskalduneko hainbat herritan.

Berriozar, 1986ko eremu mistoko herrien zerrendan agertzen ez den arren, laster batu zen zerrendara. Geroztik, eremu mistoan jarraitzen du.

Nafarroako Euskararen Foru Legeak euskararen ofizialtasun maila zehazteaz gain, bere 8. artikuluak toponimiari buruz hitz egiten du. Honetan, “Nafarroako toponimia ofizialean ere euskal grafiek eta toponimoek lehendabiziko aldiz sarbidea izan zuten” (Nafarroako Gobernua, 2000):

8.artikuluan honela xedatzen du:

1) Foru Komunitateko toponimoek bai euskaraz eta bai erdaraz izanen dute forma ofiziala, honako arauei jarraikiz:
   a) Eremu euskaldunean izen ofiziala euskaraz izanen da, non eta erdarazko izen diferenterik ez den, zeren horretara biak erabiliko baitira.
   b) Eremu misto eta erdaldunean, izen ofiziala orain arteko berbera izanen da, non eta erdaraz adierazita dagoenaren aldean beste izen bat ez

dagoen, diferentea, jatorrizkoa eta tradizionala, zeren horretara biak erabiliko baitira.

2) Nafarroako Gobernuak, Euskaltzaindiaren aurretiko txostenari kasu eginik, finkatuko du Foru Komunitateko toki izenek nola behar duten, eta bai ere lurraldeen, populazioguneen eta bide urbanoen izenak ere, eta Parlamentuari eman behar dio horren berri. Bide urbanoen izenek nola behar duten, bertako udalak finkatuko du.

2.2. Berriozar

Berriozar, Iruñerria iparraldean kokatutako herria da, Ezkaba magalean, Iruñeko erdigunetik 5 bat kilometrotara. Egun, 10.000 biztanleko langa pasa duen arren, gutxinaka eta garai ezberdinetan hazten joan den herria da:

> Zortzi sutondo zituen 1350ean, eta 24 familia 1796an. 1940ra arte 200 biztanlez behera ibili zen beti, eta urte hartan 350etaraino ailegatu. 1960ko hamarkadan populazio hazkuntza hasi zen, eta ondorioz urbanizazio berria altxatu zen zelaian, Gipuzkoako errepidearen albo bietan. 1980an 5.019 bizilaguneko kopurura iritsita, geroztik estabilizatu egin da (Jimeno Jurio, 1992a, 92-93.or).

Gaur egun, udaletxe propioa duen arren eta herri moduan ezagutzen dugun arren, lehen Antsoaingo Zendeako parte zen.

> La antigua cendea de Ansoáin está situada al N. de Pamplona, formada por doce lugares, de los que siete, los llamados “Concejos de arriba” (Berriosuso, Ballariáin, Elcarte, Añézcar, Oteiza, Larragueta y Loza) mantienen marcado carácter rural, mientras los cinco “Concejos de abajo” (Ansoáin, Artica, Aizoáin, Berriozar y Berrioplano), contiguos a la Capital o al eje vial de la carretera a Guipúzcoa, han conocido un mayor desarrollo industrial y demográfico, singularmente Ansoáin y Berriozar (Jimeno Jurio, 1992b, 29.or).

Martxoaren 14ko 89/1991 Foru Dekretuak Berriozar Antsoaingo udaletik bereizi zuen eta bere buruzko udal gisa ezarri zen (Jimeno Jurio, 1992a). Antsoainek berdina egin zuen eta beste hamar kontzejuek Berriobeitiko udala osatzen dute.

2.2.1. Berriozar eta euskara

Berriozarko herriaren historian zehar, XVIII. mendearen azkenera edo XIX.aren hasierara arte mintzatutako hizkuntza euskara izan zen. *Kontuen liburuan* agertutako zenbait baieztapenengatik jakin dezakegu. Izan ere, herri askotan bezala, Berriozarko herritarrek ere dotrina euskaraz jasotzen zuten. Data antzinekoena 1604koa da eta aginduak horrela dio: “En especial que el abad de esta iglesia declare y enseñe la doctrina cristiana a sus feligreses en vascuence de manera que lo entiendan…” (Urra et al., 1986, 94.or).

Beste urte batzuetan, 1625, 1627 eta 1630ean, berdina eskatzen da (loc. cit.): “A todos sus feligreses en *su* lengua vascongada conforme a lo dispuesto por las constituciones sinodales de este obispado”. Su lengua vascongada esamoldearekin, ondorioztatu eta baiezta dezakegu Berriozartarrek erabiltzen eta hitz egiten zuten hizkuntza euskara zela.

Egileek esaten dutenez, 1630etik 1721era, ez zen gehiago agindu abadeak euskaraz mintza zitezen. Baina, azpimarratu beharreko beste hiru data ditugu: 1664, 1682 eta 1689. Urte haietako bakoitzean, Juan Ezpeletakoak, Fancisco Palaciosek eta Pedro Bergarakoa abadeek doktrinak euskaraz azaldu zirela idatzi zuten, haientzat euskara ohiko hizkuntza zelako.

Aurretik aipatutako egileek beste data bat nabarmentzen dute, 1713. urtea. Izan ere, bi urte lehenago, Lizarrako D. Joseph de San Román izendatu zuten abade. Seguruenik ez zen euskaraz ongi mintzatuko, auzitara eraman baitzuten Martin Olabekoa eta Juan Ziakoa herriko zinpetuek, auzokide guztien izenean. Hizkuntza baskongadoa ezagutzen ez zuelako salatzen zuten.

Berriozarren euskararen indarraren berri ematen diguten beste iturri batzuk ditugu: *Matrikula Liburua*, parrokiako artxibategikoa, eta *apeos* direlakoak edo familien zentsua, Nafarroako Artxibategi Orokorrekoa.

Informazio honetan guztietan oinarrituta eta geroago azalduko dugun toponimia kontuan hartuta, garbi geratzen da Berriozar herriko hizkuntza euskara zela. Baina, noiz uzten zaio Berriozarren euskara nagusiki erabiltzeari? (Urra et al., 1986, 96-97.or):

> XVIII. mendean zehar hizkuntza bat bizirauteko eta bestea nagusitzeko borroka oso gogorra izan bide zen. Berriozar Iruñerriko herrietatik euskara galtzen lehenetarikoa izan zela uste dugu. Bi dokumentutan oinarritzen gara. Lehena 1727.eko apeoa da. [...] Abadeak eta lekukoek zin egin eta gero “fuego” (familia) guztien bilduma egiten dute. Azkenean Pedro de Gallues idazkariak, apaiz eta lekukoek sinatu egiten dute.

Hurrengo egunean, idazkari berak, apeoa Aizoainen egin zuen. Dokumentua Berriozarkoa bezalakoa da, baina ezberdintasun garrantzitsu bat du eta horrela azaltzen da *Berriozar, herri bat lurraren historian* (Urra et al., 1986, 97.or) liburuan: “En el lugar de Aizoain a 8 de abril de 1727 (...) yo el dicho escribano les leí y di a entender en idioma vascongado el contenido de la instruccion que éste…”

Baieztapen horrek 1727. urtean Berriozarren euskara galdu zela pentsatzera eraman gaitzake, baina ez du horrela izan behar. Izan zitekeen denek gaztelera ezagutzea eta euskaraz gutxiago mintzatzea.

Euskararen galeraren arrazoietako bat, herrien kokapenari argudiatzen zaio. Iruñetik gertuen zeudelako edo errepide nagusiak bertatik pasatzen zirelako. Errepide nagusiak, Iruñetik Gasteizera eta Donostiara zihoazen bideei deritzogu. Hala ere, beste batzuek ez dute uste kokapenagatik izatea. Urra et al.-ek (1986) azaltzen dutenez

gehiago iruditzen zaie eskolatuek mintzatutako hizkuntza ikasteko nahi edo beharraz pentsatzekoa dela, 1769.eko idazkari euskaldunaren baieztapenaren arabera.

Hala ere, eskolatuek esatean, ez dugu pentsatu behar Berriozarren eskola bat zegoenik, izan eren, Berriozarko eskola publikoaren 100. urteurrenean egin zen dokumentalean, Urrak (2022) dio Derrigorrezko Hezkuntzaren inguruko lehenengo informazioa 1830ekoa dela. Vesollako markesak Berriozarren eskola bat egitea debekatzen duenean. Baina, eskola ofizialik ez zegoen arren, kontzejuko etxean eskolak ematen ziren, eskola ez-ofizialak (Aizkorbe, Iriarte eta Yoldi, 2022).

Uste da, XVIII.aren amaieran edo XIX.aren hasieran euskara ez zela jadanik Berriozarko hizkuntza nagusia izango (Urra et al., 1986, 98.or). Horrela dio Jimeno Juriok (1992b, 50.or) Antsoaingo Zendeako euskarari buruz:

> El Euskara ha sido el idioma de siempre en la Cendea de Ansóain, excepto los últimos ciento sesenta años; tan claro como ahora se nos aparece el dominio del castellano, es un fenómeno muy nuevo, si lo comparamos con la edad de nuestro pueblo.

Goiko aipuak 1824. urteari egiten dio erreferentzia, baina, data hori atzera genezake.

> Estas afirmaciones pueden ser admitidas con algunas matizaciones; el euskara fue la lengua popular o maternal, transmitida por las madres a sus hijos durante generaciones, y habitual entre los vecinos. Existían otras dos lenguas cultas en uso: el latín litúrgico, en el que se expresaron (?) los fieles al cantar las misas solemnes y en otros oficios religiosos, y el castellano, entendido y probablemente hablado por algunas minorías (clérigos, palacianos, criados y jornaleros procedentes de tierras castellanohablantes), en determinadas ocasiones y contextos (Jimeno Jurio, 1992b, 50-51.or).

Baieztapen hauen guztien bidez, esan dezakegu Berriozar herri euskalduna izan zela, eta gero ikusiko dugun bezala, horren isla ere herriko toponimia da.

Eskolarekin jarraituz, Berriozarren ez zegoen euskaraz ikasteko aukerarik. 80eko hamarkadaren erdialdean gora egin zuen euren seme alabek euskaraz ikastea nahi zuten gurasoen eskaera eta mobilizatzen hasi ziren. 1984-1985. ikasturtean jarri zuten D eredua martxan *Mendialdea* eskolan, 15 bat ikaslerekin. Biki Azkarate izan zen guraso horietako bat eta *100 urte haziak hezten* (Aizkorbe et al., 2022) dokumentalean dioenez, aldi berean, gurasoek haur eskola pribatu bat sortu zuten 2-3 urte bitarteko haurrentzat. Haur eskola hau, ikastola izaera zuena, bi urtez iraun zuen, izan ere, honen helburua eskolara euskaraz hezten ziren haurrak eramatea zen eta behin D ereduko matrikulazioek gora egin zutenean, hau da, haien helburua lortzen hasi zenean, haur eskola ixtea erabaki zuten. Geroztik, Berriozarren euskaraz ikasteko aukera dago.

Herriko euskal hiztunei dagokionez, Nafarroako Gobernuak 2020an kaleratutako ikerketa soziolinguistikoaren arabera, Berriozar % 20 baino hiztun gutxiago duen herrien artean kokatzen da (Nafarroako Gobernua, 2020).

2.2.2. Berriozarko Toponimia

Berriozarko toponimiari buruz hitz egiten hasteko, garrantzitsua ikusten dut izena bera aztertzea, hori baita herriko toponimia nagusia: Berriozar. La onomastica en Navarra y su relación con la de España liburuan aipatzen dena ekarri nahiko nuke, lekuko izenari buruz mintzo da (Ramírez Sádaba, 2005, 10.or):

> El nombre del lugar se acuñó en un momento determinado y lleva incorporada su propia historia. La evolución fonética que se haya producido con el paso del tiempo dependerá de los pobladores sucesivos que han pasado por allí, la lengua que hablaban, las influencias recibidas, etc.

Sarreran aipatu dugun bezala, Berriozar izenak, aldaera ezberdinak izan ditu gaur egungo grafiara iritsi arte: *BerrioZahar* 1007. urtean, Iruñeko Katedraleko liburu borobilean agertzen denez, eta *Berrossar* (1277, 1279), *Berrioçar, Berrioçarr* (1226, 1268).

Izenaren esanahira itzulita, askotan pentsatu izan da: *berria* edo *zaharra* (*berri* o *zar* (zahar)). Baina, *Berrio*-k ez du berri esanahia eta izenari buruzko interpretazio asko daude. *Berrio* berriarekin erlazionatzeaz gain, *barrio* esanahia ere badu. Horrela adierazten du Belaskok ere (2009): “El nombre berrio ha recibido varias interpretaciones recogidas por Luis Michelena: 'barrio' y relacionarlo con *berri* nuevo”.

Azalpen honetaz gain, itzulpen kuriosoak eta herri azalpenak ekartzen ditu: ‘zarzal crecido’, ‘zarzal viejo’, ‘artiga vieja’ (Belasko, 2009).

Toponimia nagusia aztertu ondoren, azter dezagun toponimia txikia. Berriozar handitzen hasi zenean, 60. hamarkadan gutxi gorabehera, kale eta plaza berriak eraiki zituzten eta hauek nolabait izendatu behar ziren. Horretarako euskara hutsezko izen asko jarri zitzaizkien. *Berriozarko lekuak eta leku-izenak* (Euskara Kultur Elkargoa, d. g., 9.or) liburuxkan azaltzen den bezala, “kale izenak bataiatzerakoan mendeetako erabilera zuten leku-izenak aukeratu zituzten, herri zaharra berrian txertatuz”. Baina, ez hori bakarrik, izen toponimo asko orduan sortuak izan ziren eta berezitasun bat dute, euskara:

> Ez ohikoa da Berriozarko kale izenen historia eta osaketa. Berriozar berria sortu zen ia une beretik euskara hutsezko izen asko paratu izan dira herrian. Ez bi hizkuntzetan, ez gaztelaniaz sortuak eta gero euskaratuak, Nafarroako herri askotan bezala. Ez, Berriozarko izenak euskaraz sortzen ziren eta bere horretan gelditzen ziren: *Kale berri, Artekale, Iruñalde, Lekoartea, Anaitasuna, Askatasuna.* Sistema bera erabili izan da gaur egun arte (Euskara Kultur Elkargoa, d. g., 9-10.or).

Kale izendegia euskalduna osatu den arren, horrek ez du esan nahi gaztelerako toponimorik ez daudenik herrian, baina, hauek ez dira kale izenetan erabili, momentu horretan leku-izen euskalduna hobetsi dira. Adibidez: *Ardantzeta – Entreviñas, Oianondoa – El monte…* (Euskara Kultur Elkargoa, d. g., 10.or).

Beraz, esan dezakegu, Berriozarko toponimoek ere, herriko historiaren erreferentzia badirela. Herri zaharrean erabiltzen ziren hitzak baitira. Honekin, Lopez-Mugartzaren (2006, 4.or) hitzak ekarri nahi ditut nirera: “toki erdaldundu baten euskararen historian sakondu nahi izanez gero, onomastika ezinbestekoa dugu”. Onomastika aipatzerakoan toponimiari ere egin diezaiokegu erreferentzia. Honekin, lehen aipatu bezala, euskarak eta toponimiak erlazio estua dute eta Berriozar bereziki, aztertu beharreko herria da.

Datu aipagarriak dira Berriozarkoak. “Berriozarko kale izen propioen % 75 euskara hutsez dago. Zenbaki adierazgarria, kontutan hartuz Berriozarko biztanleen artean gehienak erdaldun elebakarrak direla” (Euskara Kultur Elkargoa, d. g., 10.or). Berriozarren geroz eta biztanle gehiagok euskaraz dakiten arren, urte askotan zehar ez da herri euskalduna izan, euskalduna hiztunei dagokionez eta horregatik, berezia da hainbeste toponimo euskaraz izatea. Gainera, “batzuk Berriozarko erdi aroko euskara zaharrean emanak daude”.

Izen berriak sortzerakoan, egoera berria islatu nahi izan zuten eta beste batzuk gogoak, nahiak eta sinesmen ispilu dira:

> Dena den, berriozartarren sormen sena ez zegoen agortua. Eta herri berriarekin batera, izen berriak sortu ziren, egoera berriaren ispilu. Horrela sortu ziren *Iruñalde*, Iruñetik hurbilena zegoelako garai hartan, nahiz eta gaur hala ez izan; *Kaleberri*, garai hartako berrietan berriena zelako. Baina, sortzen ziren kale izen berri guztiak ez ziren lehengo leku-izenak bezalakoak. Beste kale izen batzuk Berriozar berria sortu zutenen gogoak, nahiak eta sinesmen ispilu dira, garai bateko irudia: *Anaitasuna, Askatasuna, San Esteban, San Agustin*… (Euskara Kultur Elkargoa, d. g., 12.or).

> Izen berriek ez dute aldaketarik jaso azken urteetan zehar, baina, herri zaharreko berriozartarrek erabiltzen zituzten izenei dagokionez eta grafiari erreparatuz, aldaketak jaso izan dituzte. Berriozarko Udaletxeko artxiboko liburu zaharrena, *Catastro de la Cendea de Ansoain 1879, Berriozar* dugu. Bertan, herritarren lurrak eta mahastiak non zeuden agertzen da, eta egungo toponimoen berri ematen digute. Hauek, grafiari dagokionez, aldaketak jasan dituzte. Horrela frogatu dezakegu Jimeno Jurioren liburu ezberdinetan bilatuz, hauek adibide batzuk:

Catastro de la Cendea de Ansoain (1879)	**Jasandako aldaketak**	**Gaur egun**
Arisdi	Arizdia (1753, 1783), Arisdia, Arizddi, Larizdi (1927)	Arizdi
Aunceluce	Eunze lucea (1775, 1798, 1831, oso aipatua), Lanceluce, Landeluce (1945)	Lantzeluze (Euntzeluzea*)
Labarge	La Barga, La barga chiquita.	(La) Barga

Ychaurdi	Ichaurdia (1725), Elchaurdi (1927)	Itxaurdi (La Nogalera moduan ere ezagutua, Txopera)

Egileak egindakoa ondoko iturrian oinarritua: *Catrasto* eta *Toponimia Navarra VII.Cuenca de Pamplona, Cendea de Antsoain* (Jimeno Jurio, 2017).

Aipatzen egon garen grafiari erreparatuz, ikus dezakegu, lehen euskal hitzak izan arren, erdal grafiarekin idazten zirela. Hemen, aipamen txiki bat egin nahiko nioke Berriozarko oikonimiari. Salaberrik (2005, 91.or) *Origen y significado de la toponimia de Navarra* liburuan esandakotik abiatu nahiko nuke: “El euskera en Navarra ha sufrido un retroceso muy grande en los últimos siglos y esto ha conllevado la pérdida, entre muchas cosas, de los nombres euskéricos de numerosas localidades”. Berriozarren, ez da guztiz horrela eman, izan ere, toponimiak ez du euskara galdu, baina, oikonimiak bai.

1817. urteko apeoa ikusi behar da horretarako, herriko etxe guztiak agertzen diren dokumentu beranduenetakoa dena (Urra et al., 1986, 96.or):

> 1817.eko apeoari begiratuko diogu, herriko etxe guztiak agertzen diren dokumentu berandukoena dela eta: “La del abad, Isabelena, Musugorrirena, Machinena, Labiorena, Alcatezarrena, Mezquiricena, Ezconberrirena, casa de Peña, Nanisena, Pedrocorena, Maiarena, Iturraldea, Echechipia, Don Luisena…” (21 etxerarte). Gaur egun, oraindik ere badira beren izen zaharren ezagutzen diren etxeak, baina euskal atzizkia gabe. Adibiderako 1588.az geroztik zerrenda guztietan agertzen da Machin, eta 1657.az Motxogorri.

Beraz, Salaberrik (2005) esandakoari erreferentzia eginez, urteen poderioz Berriozarko etxeek euskal izenak galdu dituzte.

Berriozarko toponimiara itzulita, Nafarroako Euskararen Foru Legeari erreferentzia egin behar diogu. Berriozarko udalak, Nafarroako Gobernuari bere izendegia helarazi ziolako Gobernuak argitaratutako arauei egokitzeko. “1999. urterako Berriozarko kodea txukun-txukun zegoen” (Euskara Kultur Elkargoa, d. g. 12.or).

3. MARKO PRAKTIKOA

Berriozarko eskola publikoak 100 urte bete zituen 2022.urtean eta urte hauetan zehar herriak hezkuntzarekiko duen konpromezua argi geratu da. Alde zaharreko eskoletatik hasita, herri berrian moldatutako etxabeetatik pasata, gaur egungo Mendialdea ikastetxe publiko eta Berriozar DBHI eraikinera arte.

Herriak beti konpromezu handia izan du bizilagunek hezkuntza publiko eta duina jaso zezaten eta jarraian garatuko den Unitate Didaktiko honek, herriari lortutakoa eskertuko diete gaur egungo DBH 4.mailako ikasleek. Herritik herriarentzat.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldaketa garrantzitsuak egiten ditu aurreko arauan; legearen zioen azalpenean adierazten den moduan, aldaketa horietako asko jatorrizko testuan jasotako neurriak berrikusteko beharrari zor zaizkio, hezkuntza sistema XXI. mendeko erronka eta desafioei egokitzearren, Europar Batasunak eta UNESCOk 2020-2030 hamarkadarako zehaztutako helburuekin bat.

Ikuspegi horri jarraituz, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren testu berriak, atariko tituluan, hezkuntzaren printzipio eta helburuen artean aipatzen du, besteak beste, haurren eskubideak benetan betetzekoa, Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritakoaren arabera, hezkuntza inklusioa eta Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioak aplikatzea.

Jarraian dagoen Unitate Didaktikoa, Berriozar BHIn kokatua dago, Iruñerrian, Nafarroan. Beraz, Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapako irakaskuntzarako curriculumean oinarritua dago, zehazki, ekainaren 29ko 71/2022 Foru dekretuan.

3.1. Lege markoa

3.1.1. Etapako helburuak

Foru Dekretuak bere 8.artikuluan zehazten dituen etapako helburuak honako hauek dira:

a) Beren betebeharrak erantzukizunez onartzea; beren eskubideak baliatzea, gainerakoekiko begirunez; tolerantzia, lankidetza eta pertsonen eta taldeen arteko elkartasuna lantzea; elkarrizketa erabiltzea, giza eskubideak gizarte plural baten balio komun gisa sendotzeari begira, eta herritar demokratikoa izateko prestatzea.

b) Diziplina, ikasketa eta laneko ohiturak garatu eta finkatzea, bakarkakoak zein taldekoak, beharrezkoak baitira ikaskuntza lanak eraginkortasunez egiteko eta baliagarriak ere bai, garapen pertsonalari begira.

c) Sexuen arteko desberdintasuna eta haien arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna balioetsi eta errespetatzea. Gizonen eta emakumeen arteko diskriminazioa dakarten estereotipoak arbuiatzea.

d) Norberaren gaitasun afektiboak indartzea nortasunaren esparru guztietan eta besteekiko harremanetan; indarkeria, mota guztietako aurreiritziak eta jokabide sexistak arbuiatzea, eta gatazkak bakebidez konpontzea.

e) Informazio-iturriak erabiltzeko oinarrizko abileziak garatzea, zentzu kritikoaz ezagutza berriak eskuratzeko. Oinarrizko konpetentzia teknologikoak garatzea, eta haien funtzionamendu eta erabileraren gainean hausnarketa etikoan aurrera egitea.

f) Ezagutza zientifikoa jakintza integratutzat hartzea, hainbat diziplinatan egituratzen dena, eta ezagutzaren eta esperientziaren arloetan arazoak identifikatzeko metodoak ezagutzea eta aplikatzea.

g) Espiritu ekintzailea eta bere buruarekiko konfiantza, parte-hartzea, zentzu kritikoa, ekimen pertsonala, eta ikasten ikasteko, planifikatzeko, erabakiak hartzeko eta erantzukizunak bere gain hartzeko gaitasuna garatzea.

h) Ahoz nahiz idatziz gaztelaniazko (edo, hala badagokio, euskarazko) testu eta mezu konplexuak ulertu eta zuzen adieraztea, eta literatura ezagutzen, irakurtzen eta aztertzen hastea.

i) Atzerriko hizkuntza bat edo gehiago ulertzea eta horretan/horietan modu egokian hitz egitea.

j) Norberaren eta gainerako pertsonen kulturaren eta historiaren oinarrizko alderdiak ezagutzea, balioestea eta errespetatzea, bai eta Nafarroako ondare artistikoa eta kulturala, geografia eta historia eta bertako hizkuntzen, kulturen eta ohituren aniztasuna ere.

k) Norberaren gorputzaren eta gainerakoenen funtzionamendua ezagutu eta onartzea, desberdintasunak errespetatzea, gorputzaren zaintza eta osasun ohiturak sendotzea, eta gorputz hezkuntza eta kirola egitea, garapen pertsonala eta soziala errazteko. Sexualitatearen giza dimentsioa ezagutu eta baloratzea, bere aniztasunarekin. Osasunarekin, kontsumoarekin, izaki bizidunen zaintzarekin, enpatiarekin eta begirunearekin (bereziki animalien kasuan) eta ingurumenarekin lotutako ohitura sozialen balorazio kritikoa egitea, eta horiek gordetzen eta hobetzen laguntzea.

l) Arte-sorkuntza aintzat hartzea eta arte-adierazpen guztien hizkuntza ulertzea, hainbat adierazpen eta irudikapen baliabide erabilita.

3.1.2. Funtsezko konpetentziak

Honakoak hauek dira Unitate Didaktiko honen bidez landuko diren funtsezko konpetentziak:

Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia (HKK)	Hizkuntza komunikaziorako konpetentziaren funtsa interakzioa da –ahozkoa, idatzizkoa, zeinatua edo multimodala–, koherentziaz eta egokitasunaz egina, hainbat esparru eta testuingurutan eta hainbat asmo komunikatiborekin aritzeko. Berekin

	dakar modu kontzientean abian jartzea ezagutza, trebetasun eta jarrera guztiak, mezu ahozkoak, idatzizkoak, zeinatuak edo multimodalak ulertu, interpretatu eta modu kritikoan baloratzea ahalbidetzen dutenak, manipulazio eta desinformazio arriskuak saihestuta, bai eta eraginkortasunez komunikatzea ere beste pertsona batzuekin, lankidetzan, sormenez, etikaz eta begirunez. Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia norberaren pentsamendurako eta jakintzaren eremu guztietan ezagutza eraikitzeko oinarria da. Hori dela eta, konpetentzia honen garapena loturik dago gogoeta esplizitu batekin, ezagutza-arlo bakoitzaren diskurtso-genero espezifikoetan hizkuntzak duen funtzionamenduaz, bai eta ahozkotasunaren, idazketaren edo zeinatzearen erabileraz ere, pentsatu eta ikasteko. Azkenik, posible egiten du hizkuntzaren alderdi estetikoaz ohartzea eta kultura literarioaz gozatzea.
Eleaniztasunerako konpetentzia (ELK)	Eleaniztasunerako konpetentziak berekin dakar hizkuntza bat baino gehiago, ahozkoak nahiz zeinatuak, ikaskuntzan eta komunikazioan modu egoki eta eraginkorrean erabiltzea. Konpetentzia honi esker banakoaren hizkuntza profilak ezagutu eta errespetatzen dira, eta norberaren esperientziak aprobetxatzen dira estrategiak garatzeko, hizkuntzen arteko transferentziak (hizkuntza klasikoak barne) eta bitartekaritza egiteko eta, hala dagokionean, familiaren hizkuntzan edo hizkuntzetan zein hizkuntza ofizialetan trebetasunak mantendu eta eskuratzeko. Era berean, dimentsio historiko eta kulturartekoak integratzen ditu, gizartearen hizkuntza eta kultura aniztasuna ezagutu, baloratu eta errespetatzeko, elkarbizitza demokratikoa sustatzeko helburuarekin.
Konpetentzia digitala (KD)	Konpetentzia digitalak berekin dakar teknologia digitalak modu seguru, osasungarri, jasangarri, kritiko eta arduratsuan erabiltzea, ikasteko, lanerako eta gizartean parte hartzeko, bai eta haiekiko interakziorako. Konpetentzia honetan biltzen dira informazioan eta datuetan alfabetatzea, komunikazioa eta elkarlana, heziketa mediatikoa, eduki digitalak sortzea (programazioa barne), segurtasuna (ongizate digitala eta zibersegurtasunarekin lotutako konpetentziak barne), herritartasun digitalarekin, pribatutasunarekin, jabetza intelektualarekin, arazoak ebaztearekin eta pentsamendu konputazional eta kritikoarekin lotutako gaiak.
Konpetentzia pertsonal, sozial eta ikasten ikastekoa (KPSII)	Konpetentzia pertsonal, sozial eta ikasten ikastekoak berekin dakar norberari buruz gogoeta egiteko gaitasuna, nork bere burua ezagutu, onartu eta etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko; denbora eta informazioa eraginkortasunez kudeatzea; beste batzuekin elkarlanean aritzea, modu eraikitzailean; erresilientziari eustea; eta ikaskuntza kudeatzea bizitzan zehar. Berekin

	dakar, halaber, ziurgabetasunari eta konplexutasunari aurre egitea; aldaketetara moldatzea; prozesu metakognitiboak kudeatzen ikastea; elkarbizitzaren kontrako jarrerak identifikatu eta horiek lantzeko estrategiak garatzea; norberaren eta gainerako pertsonen ongizate fisiko, mental eta emozionalean laguntzea eta, horretarako, nork bere burua eta ingurukoak zaintzeko trebetasunak garatzea erantzukidetasunaren bitartez; etorkizunari begira bizitzeko gaitasuna izatea; enpatia adieraztea, eta gatazkei testuinguru integratzaile eta laguntzazkoan heltzea.
Herritar konpetentzia (HK)	Herritar konpetentziak laguntzen du ikasleek herritar arduratsu izan daitezen eta bizitza sozial eta zibikoan osotara parte har dezaten; kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen ulermenean oinarritzen da, bai eta mundu mailako gertaeren ezagutzan eta jasangarritasunarekiko konpromiso aktiboan eta munduko herritarra izatea lortzearekikoan. Alfabetatze zibikoa barne biltzen du, giza eskubideen errespetuan oinarritutako kultura demokratiko bati dagozkion balioak kontzienteki onartzea, gure garaiko arazo etiko nagusiei buruzko gogoeta kritikoa egitea eta bizimodu jasangarri bat garatzea, Agenda 2030ean jasotako Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorrena.
Ekimenerako konpetentzia (EK)	Ekimenerako konpetentziak berekin dakar aukera eta ideien gainean jardutera bideratutako bizi ikuspegi bat garatzea, beste pertsona batzuentzako balioa duten emaitzak sortzeko behar diren ezagutza espezifikoak erabiliz. Hainbat estrategia ematen ditu, ahalbidetzen dutenak begirada egokitzea, beharrak eta aukerak detektatzeko; pentsamendua entrenatzea, ingurunea aztertu eta ebaluatzeko eta ideiak sortu eta birplanteatzeko, irudimena, sormena, pentsamendu estrategikoa eta gogoeta etiko, kritiko eta eraikitzailea erabilita, sormen eta berrikuntza prozesuen barruan; eta ikasteko, arriskuak hartzeko eta ziurgabetasunari aurre egiteko gogoa piztea. Era berean, berekin dakar informazioan eta ezagutzan oinarritutako erabakiak hartzea eta elkarlan malgua izatea beste pertsona batzuekin, motibazioz, enpatiaz eta komunikazio eta negoziaziorako trebetasunekin, planteatutako ideiak gauzatzeko, balio soziala, kulturala eta ekonomiko-finantzarioa duten proiektu jasangarriak planifikatuta eta kudeatuta.
Kulturaren kontzientzia eta adierazpenerako konpetentzia (KKAK)	Kulturaren kontzientzia eta adierazpenerako konpetentziak berekin dakar ulertu eta errespetatzea kultura guztietan ideiak, iritziak, sentimenduak eta emozioak sormenez eta askotariko adierazpen artistiko eta kulturalen bidez adierazi eta komunikatzeko modua. Berekin dakar, halaber, norberaren ideiak eta norberak gizartean betetzen duen tokia edo zeregina ulertu, garatu eta adierazteko konpromisoa. Era berean, eskatzen du norberaren identitatea bilakaeran ulertzea, baita

	kultura ondarearena ere, aniztasuna bereizgarri duen mundu batean, eta benetan jabetzea artea eta beste adierazpen kultural batzuk munduari begiratzeko eta itxura emateko modu bat izan daitezkeela.

3.1.3. Deskriptore operatiboak

Hauek dira aurretik aipatutako funtsezko konpetentzien deskriptore operatiboak:

Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia (HKK)	HKK1. Badaki ahoz, idatziz, zeinuz edo modu multimodalean adierazpenak egiten, koherentziaz, zuzentasunez eta testuinguru sozialetara egokituta, eta parte hartzen du interakzio komunikatiboetan, lankidetzarako jarrerarekin eta errespetuz, bai informazioa trukatzeko, ezagutza sortzeko eta iritziak transmititzeko, bai lotura pertsonalak sortzeko.
	HKK2. Esparru pertsonal eta sozialeko, hezkuntza esparruko eta esparru profesionaleko testuak (ahozkoak, idatziak, zeinatuak eta multimodalak) ulertu, interpretatu eta modu kritikoan baloratzen ditu, askotariko testuinguruetan modu aktibo eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko.
	HKK3. Askotariko iturrietatik datorren informazioa lokalizatu, hautatu eta kontrastatzen du gero eta modu autonomoagoan, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatzen ditu irakurketaren helburuen arabera eta manipulazio eta desinformazio arriskuak saihestuta, eta informazio hori ezagutza bihurtzen du, ikuspuntu kritiko eta pertsonal batetik komunikatzeko, jabetza intelektualarekiko begirunez jokatzeaz batera.
Eleaniztasunerako konpetentzia (ELK)	ELK1. Familiaren hizkuntzaz edo hizkuntzez gainera, beste hizkuntza bat edo gehiago eraginkortasunez erabiltzen ditu, bere komunikazio beharrei erantzuteko, modu egokian bai bere garapen eta interesetarako bai esparru pertsonal eta sozialeko, hezkuntza esparruko eta esparru profesionaleko hainbat egoera eta testuingurutarako.
	ELK2. Bere esperientzietatik abiaturik, hizkuntzen arteko transferentziak egiten ditu, komunikaziorako estrategia moduan eta bere hizkuntza errepertorioa zabaltzeko.
	ELK3. Gizartean dagoen hizkuntza eta kultura aniztasuna ezagutzen, baloratzen eta errespetatzen du, eta bere garapen pertsonalean elkarrizketarako faktore moduan integratzen du, kohesio soziala sustatzen duen aldetik.

Konpetentzia digitala (KD)	KD1. Bilaketak egiten ditu Interneten, baliozkotasun, kalitate, gaurkotasun eta fidagarritasun irizpideekin, eta modu kritikoan hautatzen ditu emaitzak eta artxibatzen ditu, berreskuratu, erreferentziatu eta berrerabiltzeko, jabetza intelektuala errespetatuta.
	KD2. Ikaskuntzarako bere ingurune pertsonal digitala kudeatu eta erabiltzen du ezagutza eraikitzeko eta eduki digitalak sortzeko, informazioaren tratamendurako estrategien bidez eta zenbait tresna digital erabilita; horietatik egokiena hautatu eta konfiguratzen du egin beharreko lanaren eta etengabeko ikaskuntza beharren arabera.
	KD3. Komunikatzen da, parte hartzen du, elkarlanean eta interakzioan aritzen da edukiak, datuak eta informazioa partekatuz, tresna edo plataforma birtualak erabiliz, eta arduraz kudeatzen ditu bere ekintzak, presentzia eta ikusgaitasuna sarean, arlo digitalean herritar aktibo, zibiko eta gogoetatsua izateko.
	KD4. Teknologia digitalak erabiltzearen arriskuak ezagutzen ditu eta horiek erabiltzean prebentzio neurriak hartzen ditu gailuak, datu pertsonalak, osasuna eta ingurumena babesteko, eta teknologia horien erabilera kritikoa, legezkoa, segurua, osasungarria eta jasangarria izatearen garrantziaz eta beharraz jabetzeko.
Konpetentzia pertsonal, sozial eta ikasten ikastekoa (KPSII)	KPSII1. Bere emozioak erregulatu eta adierazten ditu, eta baikortasuna, erresilientzia, autoeraginkortasuna eta ikaskuntzarako asmoaren eta motibazioaren bilaketa indartzen ditu, erronkak eta aldaketak kudeatzeko eta bere helburuekin harmonizatzeko.
	KPSII2. Faktore sozialek osasunerako ekar ditzaketen arriskuak ulertzen ditu, gorputzerako nahiz bururako bizimodu osasungarriak sendotzen ditu, elkarbizitzaren aurkako jarrerak hautematen ditu eta horiek lantzeko estrategiak aplikatzen ditu.
	KPSII3. Modu proaktiboan ulertzen ditu beste pertsonen ikuspegiak eta esperientziak eta bere ikaskuntzan txertatzen ditu, talde-lanean parte hartzeko, eta modu ekitatiboan banatu eta onartzen ditu zereginak eta ardurak, eta lankidetza estrategiak erabiltzen ditu.
Herritar konpetentzia (HK)	HK1. Aztertu eta ulertzen ditu bere identitatearen alderdi sozial eta herritarrari dagozkion ideiak eta hura ezartzen duten egitate kultural eta historikoak, baita arauen arlokoak ere; arauekiko errespetua agertzen du, eta enpatia, ekitate eta espiritu eraikitzailea beste pertsonekiko interakzioan edozein testuingurutan.

Ekimenerako konpetentzia (EK)	EK1. Beharrak eta aukerak aztertzen ditu eta erronkei zentzu kritikoaz aurre egiten die, haien jasangarritasunaren balantzea eginda eta ingurunean izan dezaketen eragina baloratuta, ideia eta soluzio berritzaileak, etikoak eta jasangarriak aurkezteko, esparru pertsonal eta sozialean, hezkuntzakoan eta profesionalean balio sortzera zuzendutakoak.
	EK2. Bere indarguneak eta ahuleziak ebaluatzen ditu, bere burua ezagutzeko eta bere eraginkortasunerako estrategiak erabilita; ekonomiaren eta finantzen funtsezko elementuak ulertzen ditu, eta ezagutza ekonomiko eta finantzarioak aplikatzen ditu jarduera eta egoera zehatzetan, elkarlana eta talde-lana sustatzen duten trebetasunak erabilita, balioa sortzen duen ekimen-esperientzia bat gauzatzeko behar diren baliabideak bildu eta optimitzatzeko.
Kulturaren kontzientzia eta adierazpenerako konpetentzia (KKAK)	KKAK1. Ondare kultural eta artistikoa ezagutzen du, aintzat hartzen du modu kritikoan eta errespetatzen du; haren zaintzan inplikatzen da eta baloratzen du aniztasun kultural eta artistikoak atxikia duten aberastasuna.
	KKAK2. Ondarearen adierazpen artistiko eta kultural nabarmenen berezitasun eta intentzionalitateez gozatzen du, aintzat hartzen ditu eta autonomiaz aztertzen ditu; horien bitartekoak eta euskarriak bereizten ditu, bai eta haien ezaugarri diren hizkuntzak eta elementu teknikoak ere.
	KKAK4. Hainbat bitarteko eta euskarri ezagutu, hautatu eta sormenez erabiltzen ditu, bai eta teknikak ere (plastikoak, ikusizkoak, ikus entzunezkoak, soinu edo gorputzaren bidezkoak), produktu artistiko eta kulturalak sortzeko, bakarka nahiz elkarlanean, eta garapen pertsonal, sozial eta lanekorako aukerak identifikatzen ditu, bai eta ekimenerako ere.

3.1.4. Konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak

Funtsezko konpetentziak eta bakoitzaren deskriptore operatiboak aztertu ondoren, hauek dira Euskara hizkuntza eta Literatura ikasgaiari dagokion eta DBH 4.mailan zentratutako konpetentzia espezifikoak eta bakoitzaren ebaluazio irizpideak, soilik aurkeztuko den unitate didaktikoarekin bat egiten dutenak:

- 1. konpetentzia espezifikoa:

Munduaren hizkuntza aniztasuna deskribatu eta estimatzea, abiapuntua izanik ikasleen hizkuntzen aitorpena eta Nafarroaren errealitate eleaniztun eta kultura-aniztunarena, euskararen jatorria eta garapen soziohistorikoa aztertuz, baita

euskalki nagusien ezaugarriak ere, helburua izanik hizkuntzari buruzko hausnarketa sustatzea, estereotipo eta aurreiritzi linguistikoei aurre egitea eta aniztasun hori kultura aberastasunaren iturritzat hartzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profileko deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, ELK2, ELK3, HK1, HK2, KKAK1, KKAK3.

Ebaluazio irizpideak:

1.2. Aurrejuzgu eta estereotipo linguistikoak identifikatzea eta zalantzan jartzea, errespetuzko jarrera bat hartuz, kulturen, hizkuntzen eta dialektoen aberastasuna baloratzen duena, abiapuntu hartuta ingurune sozial hurbilean dagoen dibertsitate linguistikoaren azterketa eta hizkuntzen arteko hartu-emanen fenomenoen gaineko hausnarketa, baita eskubide linguistiko indibidual eta kolektiboen azterketa ere.

- 2. konpetentzia espezifikoa:

Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertu eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informazio aipagarriena bilduz, igorlearen ikuspegia eta asmoa identifikatuz eta fidagarritasuna, forma eta edukia baloratuz, ezagutza eraikitzeko, irizpidea eskuratzeko eta aisialdiaren eta gozamenaren aukerak zabaltzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profileko deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, ELK2, STEM1, KD2, KD3, KPSII4, HK3.

Ebaluazio irizpideak:

2.1. Esanahi orokorra, egitura eta informaziorik aipagarriena ulertzea, behar komunikatiboen arabera eta igorlearen asmoaren arabera, esparru desberdinetako eta nolabaiteko zailtasuneko ahozko testuetan eta testu multimodaletan, kode desberdinen arteko interakzioa aztertuz.

2.2. Nolabaiteko zailtasuneko ahozko testu eta testu multimodalen forma eta edukia baloratzea, haien kalitatea, fidagarritasuna eta erabilitako kanalaren egokitasuna baloratuz, baita erabilitako komunikazio prozeduren eraginkortasuna ere.

- 3. konpetentzia espezifikoa:

Ahozko testuak eta testu multimodalak produzitzea jariotasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz, aintzat hartuta diskurtso-generoen berezko konbentzioak, eta ahozko interakzioetan parte hartzea lankidetza eta errespetua oinarri dituen jarrera batekin, bai ezagutza eraikitzeko eta lotura pertsonalak ezartzeko, bai modu aktibo eta informatuan parte hartzeko testuinguru sozialetan.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profileko deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, HKK5, ELK2, STEM1, KD2, KD3, HK2, EK1.

Ebaluazio irizpideak:

3.1. Nolabaiteko luzera eta zailtasuneko ahozko azalpen eta argudioak ematea, planifikazio-maila desberdina edukita, norberaren, gizartearen, hezkuntzarako eta lanbiderako intereseko gaiei buruz, diskurtso-generoen berezko konbentzioekin bat,

jariotasunez, koherentziaz, kohesioz erregistro egokiz, eta euskarri desberdinetan eta hitzezko eta hitzez kanpoko baliabideak erabiliz eraginkortasunez.

3.2. Modu aktiboan eta egokian parte hartzea ahozko interakzio informaletan, talde-lanean eta elkarrizketa eiteko ahozko egoera formaletan, entzute aktiboko jarrerarekin eta elkarrizketarako lankidetzako eta jendetasun linguistikoko estrategiekin.

- 4. konpetentzia espezifikoa:

Testu idatziak ulertzea, interpretatzea eta baloratzea, zentzu kritikoarekin eta irakurtzeko asmo desberdinekin, esanahi orokorra eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak errekonozitzea, igorlearen asmoa identifikatuz, edukiaren eta formaren gainean hausnartuz eta haren kalitatea eta fidagarritasuna ebaluatuz, askotariko komunikazio beharrei eta interesei erantzuteko eta ezagutza eraikitzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profileko deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, HKK5, ELK2, STEM4, KD1, KPSII4, HK3.

Ebaluazio irizpideak:

4.1. Esanahi orokorra, egitura, informaziorik aipagarriena eta igorlearen asmoa ulertu eta interpretatzea esparru desberdinetako idatzizko testu eta testu multimodal errazetan, irakurtzeko helburu desberdinei erantzunez eta beharrezko inferentziak eginez.

4.2. Kritikoki baloratzea nolabaiteko zailtasuneko testuen edukia eta forma, haien kalitatea eta fidagarritasuna baloratuz, baita erabili diren prozedura linguistikoen eraginkortasuna ere.

- 9. konpetentzia espezifikoa:

Hizkuntzaren egituraren eta haren erabileren gaineko ezagutza mobilizatzea eta gogoeta egitea gero eta autonomia handiagoarekin hautu linguistikoei eta diskurtsiboei buruz terminologia egokia erabiliz, kontzientzia linguistikoa garatzeko, komunikazio errepertorioa handitzeko eta trebetasunak hobetzeko, hala ahozko eta idatzizko produkziorako, nola ulermen eta interpretazio kritikorako.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profileko deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, ELK2, STEM1, STEM2, KPSII5.

Ebaluazio irizpideak:

9.1. Norberaren testuak gero eta autonomia handiagoarekin berrikustea eta hobetzeko proposamenak egitea, eta, horretarako, aldaketak arrazoitzea gogoeta metalinguistikotik eta interlinguistikotik abiatuta eta metahizkuntza espezifikoarekin.

9.2. Igorlearen komunikazio xedearen eta hautu linguistikoen arteko lotura azaldu eta argudiatzea, baita hartzaileengan ondorioak ere, dituzten hizkuntzaren gaineko ezagutza esplizitua eta metahizkuntza espezifikoa erabiliz.

9.3. Alderdi orokorrak formulatzea hizkuntzaren funtzionamenduaren alderdi batzuei buruz, enuntziatuen behaketa, konparazio eta eraldaketatik abiatuta, eta hipotesiak

egiteari eta kontraadibideak bilatzeari buruz, metahizkuntza espezifikoa erabiliz eta hiztegiak, eskuliburuak eta gramatikak kontsultatuz gero eta autonomia handiagoarekin.

3.1.5. Oinarrizko jakintzak

Proposatuko den Unitate Didaktikoan honako oinarrizko jakintza hauek landuko dira. Ekainaren 29ko 71/2022 Nafarroako Dekretuak Euskara hizkuntza eta Literatura ikasgaian 4.mailan oinarritutako jakintzak dira:

A) Hizkuntzak eta hiztunak:

A.4. Gogoeta interlinguistikoa garatzea.

A.6. Aurreiritzi eta estereotipo lingustikoak aztertzea eta zalantzan jartzea. Hizkuntzen arteko hartu-emanen fenomenoak: elebitasuna, maileguak, interferentziak. Hizkuntzen arteko diglosia eta dialektoen artekoa.

A.7. Eskubide linguistikoak aztertzea, eta nola zehazten diren lege eta adierazpen instituzionaletan.

B) Komunikazioa:

B1.Testuingurua

B1.1. Komunikazio egintzaren osagaiak: egoeraren formaltasun-maila eta izaera (publikoa edo pribatua); solaskideen arteko distantzia soziala; komunikazio xedeak eta asmoen interpretazioa; komunikazio kanala eta komunikazioaren hitzik gabeko osagaiak.

B2. Diskurtso-generoak

B2.3. Esparru pertsonalaren berezko diskurtso-generoak: elkarrizketa, arreta berezia jarriz solaskidearen irudia mehatxatzen duten hizketa egintzetan (desadostasuna, kexa, agindua, gaitzespena).

B2.5. Esparru sozialaren berezko diskurtso-generoak. Sare sozialak eta hedabideak. Etiketa digitala eta desinformazioaren arriskua, manipulazioarena eta pribatutasuna urratzekoa sarean. Irudia eta osagai paratestualak aztertzea testu ikoniko-hitzezkoetan eta multimodaletan.

B3. Prozesuak

B3.1. Ahozko eta idatzizko interakzio informala eta formala: elkarrizketako lankidetza eta hizkuntza kortesia. Entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazkak dialogo bidez konpontzea.

B4. Osagai linguistikoak ezagutzea eta diskurtsoan erabiltzea

B4.2. Baliabide linguistikoak erregistroa komunikazio egoerara egokitzeko.

B4.5. Aditz formak koherentziaz erabiltzea testuetan. Denborazko korrelazioa perpausak koordinatzean eta mendeko perpausak sortzean, eta kontatutako diskurtsoan.

D) Hizkuntzari buruzko hausnarketa

D.5. Hitzak eskuratu eta sortzeko prozedurak. Esanahiaren aldaketei buruzko hausnarketa, hitzen arteko harreman semantikoak eta haien balio denotatiboak eta konnotatiboak testuinguruaren eta komunikazio xedearen arabera.

D.6. Gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea hiztegiak eta gramatika eskuliburuak gramatikari buruzko oinarrizko informazioa lortzeko.

3.2. Aniztasunari trataera

Aurretik aipatu bezala, Unitate Didaktiko hau Berriozar BHIko DBH 4.mailako ikasleentzat diseinatua dago. Gero azalduko den bezala, 3 ikas-talde daude, baina E eta F taldeetan bakarrik eramango da aurrera proiektua. Guztira 49 ikasle dira eta horietatik bik TDA-H du eta hiruk irakur-idazketa nahasmena dute. Ikastetxeko orientatzaileek eta PTek emandako gomendioak jarraituko dira, haiek baitira beharrei erantzuten dakiten profesionalak.

Bestalde, aipatu beharra dago, sortuko duten ezagutza-ibilbidea pertsona guztientzat egokia dela, azkeneko bi puntuak izan ezik (16. eta 17.puntuak). Puntu hauetara heltzeko oinez egin behar da ibilbidea, mendian murgiltzen baita. Hala ere, ibilbidea alde zaharrean amaitzen da, eta bertan bi puntu horien informazioa ere topatu ahalko dute.

3.3. Saioak

Aurretik aipatu bezala, Unitate Didaktiko hau Berriozar BHIko D ereduko 4. mailako ikasleentzat bideratua dago. 2023-2024 ikasturtean 3 talde daude maila horretan, baina, proposamen hau 4.E eta 4.F taldeetan aurrera eramanen da, paraleloki. 3. ikas taldea dibertsifikazio taldea da eta kasu honetan, bertan ez da landuko.

4.E gelan 15 neska eta 10 mutil daude eta 4.Fn, berriz, 11 neska eta 13 mutil. Berriozarko eta inguruko herrietako ikasleak dira: Itza, Txulapain eta Berriobeitiko zendeetakoak edota Artika Berri edo Bustintxurikoak.

Gela bakoitzak bere lana modu independentean egingo duen arren, bukaeran, denek batera erakutsiko dute emaitza institutuko beste irakasle eta ikasleei.

Jarraian azalduko diren saioen bitartez, Berriozarko toponimia ezagutuko eta ikertuko dute ikasleek. Herrian euskarak izan duen presentziari buruz jakiteaz gain, ikerketa txiki bat egingo dute toponimoen inguruan.

Unitate didaktiko honen helburua, Berriozarko Institutuko beste ikasleei zein herriko jendeari ikertutakoa erakustea izango da. Horretarako, ginkana moduko bat sortuko dute, zeinetan haiek sortutako QR-ez baliatuz, herrian zehar ezagutza-ibilbide bat osatuko duten.

Ibilbide horretan, Berriozarko hainbat toponimoren inguruko informazioa jasoko du herritarrak. Gainera, Berriozarko kaleak eta parajeak ezagutzeko aukera emango du. Hala ere, ibilbide osoa egin nahi ez duenarentzat, erakusketa moduko bat sortuko dute, non QR guztien informazioa ikusgai egongo den, ibilbidearen hurrenkera berdinean.

Ikerketa hau aurrera eraman ahal izateko, honako liburu hauek beharko dituzte ikasleek:

- *Berriozar. Herri bat lurraren historian* (Urra et al., 1986)
- *Berriozarko lekuak eta leku-izenak* (Euskara Kultur Elkargoa, d. g.)
- *Nafarroako toponimia eta mapagintza: Iruña, Barañain, Burlata, Uharte, Atarrabia, Antsoain, Berriozar, Berriobeiti.* (Jimeno Jurio, 1992a)
- *Toponimia navarra. VII. Cuenca de Pamplona. Cendea de Antsoain.* (Jimeno Jurio, 2017)

Institutuak eta Berriozarko udalak utziko dizkie materialak, baina, aipatutako liburu bat ikasleek etxean izanez gero, klasera ekartzea eskertuko zaie. Bestalde, egun baterako argazki kamera edo mugikorra erabili beharko dute eta klasean lan egin ahal izateko, bakoitzak bere chroombook-a erabiliko du.

1. eta 2. saioak:

Unitate didaktiko honen lehenengo atala, bi saiotan banatuko da. Egin beharrekoa ez da zehazten zein egunetan egin behar dena, baina azaldutako ordenean egitea komeni da.

Hasteko, Google Inprimakiak-en sortutako galdetegi[1] bat erantzun beharko dute ikasleek. Galdetegi honetan, haien euskaraz hitz egiteko ohituraz, herrian euskaraz bizitzeko aukerez eta euskarari buruz hausnartuko dute. Behin erantzun guztiak jasota, klasean horri buruz hitz egingo dute, denen artean hausnartzeko.

Behin euskarari buruz hausnartuta, Berriozarko euskararen historiari buruzko informazioa jasoko dute. Horretarako, *Berriozar. Herri bat lurraren historian* liburutik 93, 94, 95, 96, 97 eta 98. orrialdeak irakurriko dituzte. Bertan, XVIII. mendearen azkenera edo XIX. mendearen hasiera arte Berriozarren euskaraz hitz egiten dela azaltzen du eta informazio hori nondik baiezta dezakegun.

Ondoren, *100 urte haziak hezten* dokumentaleko zatitxo bat ikusiko dute, 41:08 minututik 46:33 minutura doana. Bertan, Berriozarren D eredua nola hasi zen azaltzen da. Ikasle gehienek ongi ezagutzen duten Mendialdea eskolan kokatzen da dokumentalaren zati hori eta haien ikaste eredua noiz eta nola hasi zen jakitea garrantzitsua da, gaur egunera nola iritsi den jakiteko.

[1] https://forms.gle/tNH6hSeqPozEmw9TA

Azkenik, eta ez horregatik inportantzia gutxiagorekin, 1986ko Euskararen Foru Legea aztertuko dute. Zer da? Zenbat eremutan banatuta dago Nafarroa euskarari dagokionez? Eremu bakoitzean nola jokatzen du euskarak? Berriozar eta klaseko beste herriak zein eremutan kokatzen dira?

Talde hausnarketa egin eta informazio berria bildu ondoren, bakarka euskararen inguruko hausnarketa bat egin beharko dute, idatziz. Denbora ematen badu, klasean idatziko dute ikasleek, horrela ez bada, etxerako lana izango da.

Lehenengo atala bukatzeko, proiektu osoa azalduko da: helburua, antolamendua, ikerketa eta ezagutza-ibilbidea. Hiru talde sortuko dituzte lana egiteko.

Funtsezko konpetentziak: HKK, ELK, KD, KPSII, HK, EK, KKAK

Ebaluazio irizpideak: 1.2; 2.1; 3.2; 4.1; 4.2; 9.1; 9.2; 9.3.

Oinarrizko jakintzak: A4, A6, A7, B1.1, B2.3, B2.5, B3.1, B4.2, B4.5, D.5

3. saioa:

3.saioa bitan banatuko da. Lehenengoa Euskara eta Literatura ikasgaian garatuko da, bigarrena aldiz, Gorputz Hezkuntza ikasgaian. Bi saio hauetan, argazki kamera edo mugikorra erabiliko dute.

Lehenik, sortutako talde bakoitzari Berriozarko zonalde bat esleituko zaio (1.mapa). Behin zonaldeak banatuta daudela (zonalde berdea, arroxa eta laranja), ikasleak kalera aterako dira zonaldea arakatzera. Haien eginbeharra, Berriozarko kaleen, plazen, komertzioen, eta abarren izenen kartelei argazkiak ateratzea da.

Gorputz Hezkuntzako klasean, Berriozarko alde zaharra arakatuko dute, baita herritik gertu dauden bi iturri natural ere: Eunsasi eta Arizdi iturriak (zonalde urdina). Hemen ere, izenen kartelei argazkia egingo diete.

Gela bakoitzean 3 talde sortuko dira horretarako. 4. E taldean zortziko bi talde eta bederatzi laguneko talde bat sortuko dira, 4. Fn aldiz, zortziko hiru talde.

Funtsezko konpetentziak: ELK, KD, HK, KKAK

Ebaluazio irizpideak: 1.2; 3.2; 4.1.

Oinarrizko jakintzak: B2.3, B3.1, D.5

4. saioa:

Saio hau hasteko, toponimoen inguruko azalpen bat jasoko dute. Zer da toponimia? Berriozarko toponimoen inguruko informazioa ere emango zaie. Horretarako, *Berriozarko lekuak eta leku-izenak* liburuxkatik Berriozarko kale-izenak atala landuko dute.

Ondoren, aurreko bi saioetan egindako argazkietan agertzen diren izenak klasifikatuko dituzte. Toponimoak dira? Euskaraz ala erderaz dira? Banaketa hori egin ondoren, euskarazko toponimoak hurrengo taula batean klasifikatuko dituzte:

PLAZA, KALEA…	KOMERTZIOA, ELKARTEA…

Alfabetikoki ordenatuko dituzte. Talde bakoitzak bere toponimoak ordenatuak dituenean, klaseko taula bateratu bat sortuko dute. Taula hori, kartulinetan egingo dituzte eta ikasgelako paretan jarriko dituzte.

Funtsezko konpetentziak: HKK, ELK, KD, EK, KKAK

Ebaluazio irizpideak: 1.2; 2.1; 2.2; 3.2; 4.1; 9.2.

Oinarrizko jakintzak: A.4, B3.1, B4.2, D.5, D.6

5, 6, 7 eta 8. saioak:

Unitate didaktiko hau sortzean sortutako mapa emango zaie ikasleei (2.mapa). Mapa horretan, sortu beharko duten ibilbidea dago, aurretik topatutako toponimo batzuekin osatua.

0.Aurkezpena (Berriozar BHI)	1. Gipuzkoa Etorbidea	2. San Agustin Kalea
3. Artekale Kalea	4. Eguzki Plaza	5. Iruñalde Kalea
6. Kaleberri Kalea	7. Arizdi Kalea	8. Auzalor Kalea
9. Etxaburua Kalea	10. Artikabidea Kalea	11. Zortziko
12. Lantzeluze Kalea	13. Berriozar Etorbidea	14. Plazaola ibilbidea (bide berdea)
15. Itxaurdi natur gunea	16. Arizdi iturria	17.Eunsasi iturria

Oraingoan, toponimo horiek 6 taldetan banatuko dira, hau da, batzuk 4.E ikasgelako hiru taldeetan eta besteak 4.Fko taldeetan. Izan ere, aurretik aipatu bezala, ibilbidea guztien artean osatuko dute. 3 toponimo hartuko ditu talde bakoitzak, baina talde batek, bi toponimo eta ezagutza-ibilbidearen sarrera sortu beharko du.

Behin talde bakoitzak haren toponimoak dituela, haien inguruko ikerketa egingo dute. Horretarako lehen aipatutako liburuak erabiliko dituzte, baita Internet ere.

Aztertu beharreko eremuak honako hauek izango dira:

- Lehengo eta gaurko grafia aldaketak

- Esanahia
- Bitxikeriarik?

Funtsezko konpetentziak: HKK, ELK, KD, KPSII, HK, EK, KKAK

Ebaluazio irizpideak: 1.2; 2.1; 2.2; 3.2; 3.2; 4.1; 4.2; 9.1; 9.2; 9.3.

Oinarrizko jakintzak: A.4, A.6, A.7, B1.1, D.5, D.6

9. eta 10. saioak:

Saio hauetan QRak sortu eta hauek elikatuko dituzte.

QRak ikasle guztiek ezagutu eta noizbait erabili duten Canva web-orrialdearekin sortuko dituzte. Horretarako lehenengo edukia sortu beharko dute, gero artxiboaren linka beharko baitugu QRa sortzeko.

QRak aurreko saioetan aztertutako toponimoen informazioarekin elikatuko dituzte. Gainera, Berriozarko udalak lehengo (egotekotan) eta gaurko argazkiak utziko dizkie ikasleei, informazioari gehitzeko eta bisualagoa egiteko. (3.irudia)

QRa sortzeko, Canvan ‘crear un diseño’ri eman eta tamaina aukeratzen uzten duen lekuan sortuko dute. Dokumentu laukiduna sortuko dute ikasleek (500x500px). Behin sortua dagoela, ezkerreko menuan, apps (aplikazioak) eremuan ‘Generador de codigo QR’ bilatuko dute eta hor ‘Codigo QR’. Pausu hauek guztiak egoki egin ondoren, edukia sortu den linka jartzeko eskatuko du eta hortik sortuko da QRa. (4.irudia).

Funtsezko konpetentziak: HKK, KD, KPSII, HK, EK, KKAK

Ebaluazio irizpideak: 2.1; 3.2; 9.1; 9.2, 9.3.

Oinarrizko jakintzak: A.4, A.6, A.7, B1.1, D.5, D.6

11. saioa:

Bukatzeko, irakasleak sortutako QRen informazioa inprimatuko du, kartel moduko batzuk sortuz. Kartel horiekin, Berriozarko kulturgunean erakusketa muntatuko dute ikasleek.

Ordu hau, ez da berdina izango E eta F ikasgelentzat. Talde batek erakusketa muntatuko du eta besteak aurkezpena prestatuko baitu.

Ezagutza ibilbidean QRak jartzeko, jolas ordu bat baliatu beharko dute, kalez kale joateko. Talde bakoitzak bere QRak jarriko ditu, denak kale izenen karteltxoaren azpian, azkar topatzeko.

Behin QR guztiak elikatuak daudela eta erakusketa ikusteko moduan dagoela, aurkezpena egingo dute. Aurkezpena egiteko, ez du zertan euskara klaseetan izan, patio ondorengo azkeneko bi orduak hartuko dituzte horretarako. Lehenengo orduan azkeneko prestaketak egingo dituzte eta azkenik, aurkezpena.

Aurkezpena institutuko D ereduko ikasleen aurrean egingo dute eta Berriozarko udaleko zinegotziei ere gonbita egingo zaie gerturatu daitezen. Udaletxea izanen da ondoren herri osoari lana zabalduko diona.

Funtsezko konpetentziak: HKK, KD, KPSII, HK, EK, KKAK

Ebaluazio irizpideak: 3.1;

Oinarrizko jakintzak: B1.1, B2.3, B2.5, B3.1, B4.2, B4.5

3.4. Ebaluazioa

Unitate Didaktiko hau izandako jarrerarekin ebaluatuko da. Irakasleak klaseko lana eta prestutasuna baloratzeaz gain, ikasle bakoitzak autoebaluazioa eta koebaluazioa egingo du. Horretarako honako errubrika hau jarraitu beharko dute:

	4-BIKAIN	3-OSO ONGI	2-ONGI/NAHIKO	1-GUTXIEGI
PARTE HARTZEA ETA LANKIDETZA	Proposatutako zereginetan aktiboki parte hartu du eta besteei laguntza eskeini die	Modu egokian parte hartu du	Ez da gehiegi inplikatu, minimoan lan egin du	Ia ez du lanik egin eta ez da arduratu lanaren garapenaz
LAN BANAKETA	Aktiboki parte hartu du proiektua gauzatzeko behar diren zeregin guztietan	Bere zereginak egin ditu, eta beste zereginetan pixka bat inplikatu da	Bere lana egitera mugatu da, beharrezkoak ziren beste zereginetan harte hartu gabe	Ez du bere lanaren zatia egin eta ez da inplikatu
ERANTZUNKIZUNAK ETA EGINKIZUNAK BERE GAIN HARTZEA (KONPROMEZUA)	Bere eginkizunak oso ongi bete ditu eta bere erantzunkizunak ezin hobeto bete ditu	Eskatu zaion guztia egin du	Lankidetzan aritu da, baina, batzuetan, taldearen lana oztopatu du.	Ez du lanik egin, ez du erantzunkizunik bere gain hartu eta giro txarra sortu du taldean.

	NIRE IZENA	IZENA 1	IZENA 2	IZENA 3	IZENA 4	IZENA 5	IZENA 6	IZENA 7	IZENA 8
PARTE HARTZEA									
LAN BANAKETA									
KONPROMEZUA									

Edukiak notarik izango ez duen arren, irakasleak jarraipen zehatza egingo dio, erakusteko moduan egon behar duelako.

4. **ONDORIOAK**

Proiektu hau aurrera eraman ez denez, aurreikusten ditudan ondorioen hipotesiak azalduko ditut.

Uste dut, lan honek harrera ona izango duela ikasleen artean, batez ere, Berriozarkoak diren ikasleen artean. Hala ere, Berriozarkoak ez direnek ere gustura egin ahal izango duten lana da.

Hasteko, haien lan bat herriari erakutsi ahal izatea eta praktikoa izatea ikasleak motibatuko ditu, haien lana ez baita betiko moduan klasean geratuko. Gainera, herriari, lagunei edota familiari erakutsi behar izan horrek, beste konpromezu eta motibazio bat ematen dio lanari.

Bestalde, bi saio izango dituzte klasetik eta institututik kanpo garatzeko. Klasetik ateratzea beti da pozgarria ikasleentzat. Kalera ateratzean, bakarrik joango dira, konfiantza jarriko da haiengan lana ongi egin dezaten.

Hala ere, zailtasun batzuk ikusten dizkiot lanari, toponimoen informazioa topatzerako orduan. Informazioa eskuragarri izango dute: liburuak klasean izango dituzte, Internet... Baina, informazio hori guztia sailkatzean zailtasunak izan ditzakete, izan ere, adin horretan, ez daude liburuetan informazioa bilatzera ohituak eta nahasmena sor diezaieke. Horrela ere, irakasleak laguntza emango die informazio guztia ordenatu ahal izateko eta QRak elikatzerako garaian zer gehitu eta zer kendu proposatuko die.

Bukatzeko, uste dut, Berriozarko institutuan egiteko lan polita dela, ikasleentzat eta herriarentzat interesgarria izan daitekeelako. Dena dela, Unitate Didaktiko honek ez du aukera askorik ematen urtez urte lantzeko. Berriozarko toponimiak ez ditu aldaketa askorik jasango eta urteak pasa ahala aztertu ahal diren toponimoak bukatuko dira. Hala ere, polita izan daiteke herriko kale guztien QRak sortzea.

5. BIBLIOGRAFIA

Aizkorbe, E. (2023). *Euskararen egoeraz jabetzeko proiektu didaktikoa*. https://docs.google.com/document/d/1cRkpBtfEqBWlAAnp1Z58apyty3bX2_cKaxRSj7mU9DI/edit?usp=drive_web&ouid=103775290285627318248&usp=embed_facebook

Aizkorbe, E., Iriarte, A., eta Yoldi, U. (Zuzendariak). (2022). *100 años sembrando semillas | 100 urte haziak hezten*. https://www.youtube.com/watch?v=IKiotlCxY0c

Belasko, M. (2009). *Berriozar*. http://mikelbelasko.blogspot.com/2009/11/berriozar.html

Berriozar. (2024). *Wikipedia, entziklopedia askea-n*. https://es.wikipedia.org/w/index.php?title=Berriozar&oldid=158506191

Concejo de Ansoain. (1879). *Catastro de la cendea de Ansoain 1879, Berriozar.*

Estudio_soiolinguistico_2018.pdf. (d. g.). 2024ko martxoaren 28an berreskuratua https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/estudio_soiolinguistico_2018.pdf

Euskaltzaindia. (d. g.). *EH - Bilaketa—Bilaketa*. 2023ko azaroaren 23an berreskuratua https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegianbilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu-ES&nondik=0&zenbat=100&entryId=24280&query=ikus-entzunezko

Euskara Kultur Elkargoa. (d. g.). *Berriozarko lekuak eta leku-izenak*. Euskara Kultur Elkargoa.

Euskararen Foru Legea. (2021). *Wikipedia, entziklopedia askea-n.* https://eu.wikipedia.org/w/index.php?title=Euskararen_Foru_Legea&oldid=8371192

Google Maps. (d. g.). Google Maps. 2024ko ekainaren 6an berreskuratua, https://www.google.es/maps/place/31013+Berriozar,+Navarra/@42.8386202,-1.6767899,2554m/data=!3m1!1e3!4m6!3m5!1s0xd5092a426e7b4cd:0x61a82a

57a3b2755c!8m2!3d42.8382486!4d-1.6699958!16zL20vMDhjX2Z4?hl=es&entry=ttu

Jimeno Jurio, J. M. (1992a). *Nafarroako toponimia eta mapagintza.* Nafarroako Gobernua.

Jimeno Jurio, J. M. (1992b). *Toponimia de la Cuenca de Pamplona: Cendea de Ansoain*. Nafarroako Gobernua

Jimeno Jurio, J. M. (2017). *Toponimia navarra. VII. Cuenca de Pamplona. Cendea de Ansoain.* Nafarroako Gobernua

Lopez-Mugartza, J. K. (2008). *Erronkari eta Ansoko toponimiaz*. Euskaltzaindia

Nafarroako Gobernua. (d. g.). *Euskara. 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari Buruzkoa—Navarra.es*. 2024ko apirilaren 3an berreskuratua http://www.navarra.es/NR/exeres/80CF3F15-A9C6-40B2-867B-F7C50905CCD6.htm

Ramírez Sádaba, J. L. (2005). *La Onomástica en Navarra y su relación con la de España: actas de las primeras jornadas de onomástica (Pamplona, 2003)*. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Salaberri, P. (2005). Origen y significado de la toponimia de Navarra. In Jose Luis Ramírez Sádaba (arg). *La Onomástica en Navarra y su relación con la de España: actas de las primeras jornadas de onomástica (Pamplona, 2003).* Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 91-128 or.

Urra, C., Errea, A., & Elia, M. (1986). *Berriozar. Herri bat lurraren historian.* Berriozarko Kontzejua.

6. **ERANSKINAK**

1.mapa:



(*Google Maps*, d. g.)-tik hartua eta egileak moldatua.

2.mapa:



(*Google Maps*, d. g.)-tik hartua eta egileak moldatua.

3.irudia:

ITXAURDI

Dokumentazio zaharra: Ychaurdia (1677, 1785) Ichaurdia, pieza en (1725), Ihaurdia (1755), Echaurri, Ichaurdi (1798, 1835).
Dokumentazio garaikidea: Ychaurdia, Ylchaurdia (1651, 1657), Ichaurdi (1879), Inchaurdi (1927), Elchaurdi (1927), Echaurdi (1927, 1945). 'La Nogalera' ere deitua

Alde zaharraren azpian kokatzen den naturgunea da, gaur egun aisialdirako prestatua dagoena.
Gune honek, alde zaharrarekin lotura du, bertatik jeisten diren egurrezko eskailera batzuen bidez. Bestela, Plazaola ibilbidetik irits zaitezke bertara.

Arraroa egin ahal zaigu Itxaurdi deitzea eta bertan makaldia topatzea. Honek azalpen bat du: lursail komun honetan, aspaldian intxaurrondoak zeuden, zeinak zuhaitz horiek etxe batzuenak ziren. Horrek liskarrak sortu zituen, eta makaldia jartzea erabaki zuten, arazoekin bukatzeko.

Horregatik, izen ofiziala Itxaurdia den arren, herrian *La Txopera* moduan ezaguna da.

Euskara Kultur Elkargoa, d. g.; Jimeno Jurio, 1992a eta 2017. Irudiak: egilearenak.

4.irudia: